 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 09- 30
	IZENA: 20250930ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 10 - 22
		ORRIALDEA:	14 (e)tik 1

UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURA

EGUNA: 2025 - 09 - 30

ORDUA: 19:00

IZAERA: OHIKOA

LEHENDAKARIA:

REGINA SORARRAIN LASA andrea.


ZINEGOTZIAK:

- **EDURNE ARRAYET GARMENDIA** andrea.
- **ASIER EZEIZA IRAZUSTABARRENA** jauna.
- **AMAIA JIMENEZ ARANDIA** andrea.
- **ANDREA LARRAÑAGA CEBALLOS** andrea.
- **MARIA JESUS GAZTAÑAGA OTERMIN** andrea.
- **MAIALEN LANDART HERRERO** andrea.
- **MARIA PILAR PALOMARES PEREZ** andrea.

IDAZKARIA:

- **JON ZALDUENDO TELLERIA** jauna.

ALEGIako UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURAK

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 09- 30
	IZENA: 20250930ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 10 - 22
		ORRIALDEA:	14 (e)tik 2

Alegian, udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deira, bi mila eta hogeita bosteko irailaren hogeita hamarrean, hemeretzi ordu direla, Udalaren Batzar Osoa biltzen da ohizko saioan, goian aipatzen diren zinegotziak partaide direla, Regina Sorarrain Lasa andrea alkatearen lehendakaritzapean.

Bertan aurkitzen da Jon Zalduendo Telleria, Udalaren Idazkaria, eta zinpean ekitaldiaren berri jasotzen du.

Dokumentuan erabiltzen diren akronimoak:
EH BILDU: Euskal Herria Bildu Udal talde Politikoa.
AA: Aurrera Alegia Udal Talde Politikoa.

AZTERGAIK

I.- UDAL JADUERAREN BERRI EMATEA.

I.- Alkatetzaren erabakien berri ematea.

II.- ERABAKIAK

I.- Aurreko aktak onartzea:

- 2025/07/09koa.

II.-Udal aurrekontuaren kreditu aldaketa 2025-KALD-05 espedientea onartzea. Erabaki proposamena.

III.- Larraitz ekialdea auzoko irisgarritasuna hobetzea eta hiri birsorkuntza obra kontratuaren aldaketa, hain zuzen ere, Onartzea “Larraitz Ekialdea – Proiektuaren Aldaketa I” deritzon dokumentu teknikoa.

IV.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Alegiako Udalaren arteko hitzarmena luzatzea, etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko. Erabaki proposamena.


V.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Alegiako Udalaren arteko hitzarmena sinatzea, Eskua espedienteen kudeatzailea ezartzeko. Erabaki proposamena.

III.- MOZIO, ERREGU ETA GALDERAK.

Alegia, 2025ko irailaren 25a

Alkateak

ALEGIako UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURAK

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 09- 30
	IZENA: 20250930ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 10 - 22
		ORRIALDEA:	14 (e)tik 3

I.- UDAL JARDUERAREN BERRI EMATEA

I.I.- Alkatetzaren erabakien berri ematea.

Iraganeko 2025ko uztailaren 9eko Osoko Bilkura geroztik, alkatetzak hartutako erabakien zerrenda igorri da deialdiarekin batera, eta honenbestez berri ematen zaio Batzarrari, indarrean dagoen azaroaren 28an onartutako 2568/1986 Errege Dekretuak arautzen dituen Toki Erakundeetarako Eraketa, Jarduera eta Legebideko Araudiaren 42.atalean adierazten den ondorioetarako.

Asier Ezeiza, EH Bilduko zinegotziak hurrengo esan zuen: *“Harritu diguna da Alkatetza dekretuen artean 318/2025 Alkatetza dekretua, kontratazio Txikia, Haurreskolako kanpoaldeko patioa estaltzea. Esleipenduna: CONSTRUCCIONES METALICAS LAUR SL. Ikustea, hau da , izan ere hurrengo asteko batzordean gai honi buruz hitz egin behar genuen, baina dagoeneko erabakia hartuta dago.”*

Alkateak hurrengo esan zuen: *“Bere garaian gai honi buruz hitz egin genuen, proiektua berraztertu egin da eta bideratu egin behar dugu urtea bukatu baino lehen aurreko urteko partida bat da eta, horregatik presa geneukan, hala ere batzordean hitz egingo dugu gaiaren inguruan.”*

II.- ERABAKIAK

II.I.- AURREKO AKTAK ONARTZEA.

2025ko uztailaren 9eko bilkurako akta.

Bilkurako deialdiarekin batean, aktaren zirriborroa igorri zaie Zinegotziei.


Alkate-Lehendakariak, aktaren edukiari buruz norbaitek oharrik egin nahi duen galdetzen du; onartzea proposatuz.

Ez da oharpen eta aldaketa zehatzik egiteko eskatu, edo proposamenik egiten.

Aldaketarik inork ez du eskatzen, eta ondorioz, indarrean dagoen azaroaren 28an onartutako 2568/1986 Errege Dekretuak arautzen dituen Toki Erakundeetako Eraketa, Jarduera eta Legebideko Araudiaren 91.atalean araututakoaren arabera, **ontzat hartua jotzen da.**

II.II.- UDAL AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA 2025-KALD-05 ESPEDIENTEA ONARTZEA. ERABAKI PROPOSAMENA.

ALEGIAko UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURAK

	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 09- 30
	IZENA: 20250930ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 10 - 22
		ORRIALDEA:	14 (e)tik 4

I.- Deialdiarekin batera, gaiari buruzko dokumentazio zabal eta ugaria igorri zaie aurretik Zinegotziei. Halaber, honela dion erabaki proposamena ere, igorria izan da:

UDAL AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA 2025-KALD-05 (KREDITU GEHIGARRIAK) ESPEDIENTEA ONARTZEA. ERABAKI PROPOSAMENA.

I.- Deialdiarekin batera honela dion erabaki proposamena igorria izan da:

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 601.01.153.20 2025	Larraitz auzoko ekialdea	0,00	225.000,00	225.000,00
GUZTIRA		0,00	225.000,00	225.000,00


Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01.000.00 2025	Diruzaintzako gerakina.	225.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			225.000,00

KODEEN AZALPENA: a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.

ALEGIA, 2025eko irailaren 25a. Alkateak. Regina Sorarrain Lasa

II.- Idazkari kontu-hartzaileak behar diren txosten eta ziurtagiriak egin ditu.

ALEGIako UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURAK

 <p>Alegiako Udala Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 09- 30
	IZENA: 20250930ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 10 - 22
		ORRIALDEA:	14 (e)tik 5

III.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuari buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34.atalaren arabera Udal Batzarraren Osoko Bilkura da organo eskuduna espedientea onartzeko, gorputz juridiko bereko 15, 17 eta 18 ataletan araututako prozedura jarraituz.

IV.- Halaber, Idazkari kontu-hartzaileak jarraitu beharreko prozedura administratiboaren berri ematen du; eta azkenik, erabaki proposamenaren berri ematen da.

V.- Batzorde Txosten-emaileak gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, ontzat eman du eta organo eskudunak behin betiko onartzeko proposamena egin du.

Erabaki proposamena:

Lehena: Bideratutako espedientea eta jarraitutako prozedura ontzat eman, eta Udal aurrekontuko kreditu aldaketa 2025-KALD-05 (Kreditu Gehigarriak) espedienteari hasierako onarpena eman.

Bigarrena: Jendaurrean jarri espedientea iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkian argitaratuta.

Hirugarrena: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuari buruzko abenduaren 19ko Foru Araua 21/2003 Foru Arauko 15.1 artikuluan ezarritako 15 laneguneko epean. Jendaurreko epean erreklamaziorik ez bada aurkezten, oraingo erabakia behin-betikotzat joko da besterik gabe.

II.- Parte hartze txandarik ez da eskatzen, eta zuzenean bozketara jartzen da gaia.


Bozketeta eta erabakiak:

Alkateak bozketara jartzen du erabaki proposamena, eta honako emaitzak jasotzen dira:

- 1) Alde bozkatzen dute: EH-BILDU taldeko hiru boto, eta AA taldeko bost boto. Beraz, zortzi boto aldeko, aho batez.
- 2) Aurka bozkatzen dute: Aurkako botorik ez dago.

Aldeko zortzi boto, aurkakorik gabe, beraz aho batez, nahiko eta beharrezko gehiengoa osatzen dutela,

ERABAKIA: Bideratutako espedientea eta jarraitutako prozedura ontzat eman, eta Udal aurrekontuko kreditu aldaketa 2025-KALD-05 (Kreditu Gehigarriak) espedienteari hasierako onarpena eman.

 Alegiako Udala Gipuzkoa	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 09- 30
	IZENA: 20250930ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 10 - 22
		ORRIALDEA:	14 (e)tik 6

II.III.- LARRAITZ EKIALDEA AUZOKO IRISGARRITASUNA HOBETZEA ETA HIRI BIRSORKUNTZA OBRA KONTRATUAREN ALDAKETA, HAIN ZUZEN ERE, ONARTZEA “LARRAITZ EKIALDEA – PROIEKTUAREN ALDAKETA I” DERITZON DOKUMENTU TEKNIKOA.

I.- Deialdiarekin batera, gaiari buruzko dokumentazio zabal eta ugaria igorri zaie aurretik Zinegotziei. Halaber, honela dion erabaki proposamena ere, igorria izan da:

(...)

Udalbatzarrak, txosten honetan jasotako arrazoi tekniko eta juridikoak oinarri hartuta, eta interes publikoa eta gardentasuna zainduz, honako akordio-testu argi eta eraginkorra onartzea proposatzen dut:

Lehenengoa.- Onartzea “Larraitz Ekialdea – Proiektuaren Aldaketa I” deritzon dokumentu tekniko, bere osotasunean: memoria arrazoitua, plano eguneratuak, neurketak eta aurrekontu xehatua, baita Segurtasun eta Osasun Dokumentuaren eguneratzea ere. Onarpen honek esan nahi du espediente honetan jasotako neurriak dira obran aplikatuko diren erreferentzia bakarra, jatorrizko proiektuaren zuzenketa eta ordezkatzeko partzial gisa, eta hortik aurrera horien arabera jardungo da.


Bigarrena.- Ezarrita uztea kontratuaren zenbateko berria: 2.293.499,83 € (BEZ barne). Zenbateko hau kalkulatu da aldaaketaren 214.147,95 €-ko eraginarekin, eta ez du ukitzen kontratuaren gainerako baldintzen indarraldia, salbu eta aldaqueta-proiektuan berriaz zehaztutako egokitzapen teknikoak. Kontratuaren izaera orokorra bere horretan mantentzen dela adierazten da, eta, beraz, aldaketak ez du lehiaren baldintzetan funtsezko eraginik.

ADJUDICACIÓN	PC	BEZ-a	DENA
	1.718.472,62 €	21%	360.879,25 € € 2.079.351,88

PRELIKIDAZIOA	PC	BEZ-a	DENA
	1.895.454,41 €	21%	398.045,43 € € 2.293.499,84

UDALA	1.647.685,40 €	21%	346.013,93 € 1.993.699,34
--------------	----------------	-----	----------------------------------

ALEGIako UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURAK

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 09- 30
	IZENA: 20250930ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 10 - 22
		ORRIALDEA:	14 (e)tik 7

				€
GUSA	247.769,01 €	21%	52.031,49 €	€ 299.800,50
EJ-GV	- €	21%	- €	- €

Hirugarrena.- Onarpen honekin batera, kontuan hartuz kreditu gehigarria onartu dela, gastu-konpromisoa hartzea, dagokion kreditu-nahikotasunaren ziurtagirian oinarrituta.

II.- Parte hartze txandarik ez da eskatzen, eta zuzenean bozketara jartzen da gaia.

Bozketak eta erabakiak:

Alkateak bozketara jartzen du erabaki proposamena, eta honako emaitzak jasotzen dira:


- 1) Alde bozkatzen dute: EH-BILDU taldeko hiru boto, eta AA taldeko bost boto. Beraz, zortzi boto aldeko, aho batez.
- 2) Aurka bozkatzen dute: Aurkako botorik ez dago.

Aldeko zortzi boto, aurkakorik gabe, beraz aho batez, nahiko eta beharrezko gehiengo osatzen dutela,

ERABAKIA: Onartzea “Larraitz Ekialdea – Proiektuaren Aldaketa I” deritzon dokumentu teknikoa, bere osotasunean: memoria arrazoitua, plano eguneratuak, neurketak eta aurrekontu xehatua, baita Segurtasun eta Osasun Dokumentuaren eguneratzea ere.

II.IV.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ALEGIAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA LUZATZEA, ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO. ERABAKI PROPOSAMENA.

I.- Deialdiarekin batera, gaiari buruzko dokumentazio zabal eta ugaria igorri zaie aurretik Zinegotziei. Halaber, honela dion erabaki proposamena ere, igorria izan da:

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 09- 30
	IZENA: 20250930ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 10 - 22
		ORRIALDEA:	14 (e)tik 8

ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA ESKAINTZEA FINANTZATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ONARTUTAKO HITZARMENA LUZATZEA ONARTZEA.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2025ko irailaren 10an egindako batzarraldian, ondoko erabakia hartu du:

"4.2.- Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) finantzatzeko udal eta mankomunitateekin formalizatutako hitzarmenen luzapena onestea.

Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko zerbitzu sozialak sistema integratu batean antolatzen eta egituratzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan zerbitzu horiek hartzeko eskubidea herritar guztiei bermatzeko.


Aipatutako 12/2008 legearen 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) jasotzen da lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen barruan, eta udalen eskumenekoa da zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikulua ezarritakoaren arabera.

Legearen eskumen-banaketaren arabera, zerbitzu hori udalaren eskumen-eremuan ematen bada ere, aipatutako legearen hirugarren xedapen iragankorrean aurreikusitako euskal administrazio publikoen arteko finantza-berregokitzea gauzatzen ez den bitartean, udalak ezin du bere gain hartu etxez etxeko zerbitzuaren finantzaketa bakarrik. Ez, behintzat, horrek intentsitate- eta estaldura mailak murriztea ekarri gabe, aipatutako xedapen iragankorrak berariaz debekatzen duen bezala.

Aurrekoa ikusita, Diputatuen Kontseiluak 2021eko azaroaren 30eko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalekin eta mankomunitateekin Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko hitzarmen eredia onetsi zen.

Erabaki horren hirugarren puntuan xedatutakoaren arabera, Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuari (gaur egun, Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentua) ahalmena eman zitzaion dagozkion hitzarmenak sinatzeko, bai eta beharrezkoak ziren gainerako kredituak baimentzeko ere, dagozkien urterokoei zegozkien ekitaldiko aurrekontu orokorrak indarrean zeudenean.

Horren arabera, Gizarte Politiketako Departamentuak zegozkion hitzarmenak sinatu zituen Gipuzkoako Lurralde Historikoko 78 udalekin eta mankomunitateekin. Hitzarmenetan ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako udalerrietan etxeko laguntza zerbitzua emateagatik foru finantzaketaren urteko kostua 8.192.461,00 eurotan finkatu zen.

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 09- 30
	IZENA: 20250930ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 10 - 22
		ORRIALDEA:	14 (e)tik 9

Hitzarmen horiek, hamalagarren klausulan ezarritakoaren arabera, 2021eko urriaren 1etik aurrera izan zituzten ondorio ekonomikoak, eta aurreikusi zen 2023ko abenduaren 31ra arte egotea indarrean.

Kontuan izanda etxeko laguntza zerbitzua segidazko traktuko zerbitzua dela, hitzarmenaren ondorio ekonomikoak zabaltzeko aukera ezarri zen, lau urteko hasierako iraupena agortu arte. Ahalmen hori baliatuz, Diputatuen Kontseiluak 2023ko abenduaren 12ko bilkuran hartutako erabakiak jada aurreikusi zuen urte natural batez ondorio ekonomiko horiek zabaltzea, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

Ondoren, Diputatuen Kontseiluak, 2024ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, bederatzi hilabeteko beste behin ondorio ekonomikoak zabaltzea onetsi zuen, hasierako gehieneko indarraldia (lau urtekoa) agortu arte. Ondorio ekonomikoen zabalpen horrek 2025eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitarteko aldia hartzen zuen, eta aplikatu zen alde sinatzaileek indarraldia amaitu aurretik adostu zitzaketen luzapenei kalterik egin gabe, hitzarmenaren 14. klausulak xedatutakoaren arabera:

“Hala ere, hitzarmena sinatzen duten alderdiek aho batez eta hasierako lau urteko epea amaitu baino lehen adostu ahal izango dute hitzarmena luzatzea, beste lau urtez gehienez, edo hitzarmena azkentzea.”


Hala, lau urteko hasierako indarraldia 2025eko irailaren 30ean amaituko da. Puntu honetara iritsita, eta zerbitzua ematen jarraitzeko, egokitzat jotzen da hitzarmena urtebetez luzatzea, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era. Luzapen hori amaituta, alderdiek beste luzapen batzuk adostu ahal izango dituzte, betiere hitzarmenean aurreikusitako beste lau urteko gehieneko aldia errespetatzen badute.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan laguntza zerbitzua emateagatiko foru finantzaketaren urteko kostua 8.192.463,00 eurokoa izango da. Hamabi hilabeteko zabalpen berriari dagozkien ordainketak hiruhileko lau likidaziotan ordainduko dira.

Horiek horrela, Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak, eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

Lehenengo.- Urtebetez luzatzea Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Lurralde Historikoko udal eta mankomunitateekin Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) finantzatzeko formalizatutako hitzarmenak, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era.

 <p>Alegiako Udala Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 09- 30
	IZENA: 20250930ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 10 - 22
		ORRIALDEA:	14 (e)tik 10

Erabaki honen I. eranskin gisa erantsi dahitzarmena luzatzeko eranskinaren eredia.

Halaber, II. eranskin gisa udalerrri eta mankomunitate sinatzaileen zerrenda erantsi da.

Bigarren.- Baimentzea 8.192.463,00 euroko gastua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan etxeko laguntza zerbitzua emateagatiko foru finantzaketaren hamabi hilabeteko kostua estaltzeko, hurrengo moduan banatuta:

<i>Udalak / Ayuntamientos</i>	<i>Aurrekontu-partida / Partida presupuestaria</i>
2.017.706,00 €	1 0320.210.461.01.04 2025
6.053.116,00 €	5 0320.210.461.01.04 2026
<i>Mankomunitateak / Mancomunidades</i>	<i>Aurrekontu-partida / Partida presupuestaria</i>
30.411,00 €	1 0320.210.461.06.02 2025
91.230,00 €	5 0320.210.461.06.02 2026


Hirugarren.- Ahalmena ematea Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuari hitzarmenak luzatzeko dokumentuak sinatzeko, bai eta udalek edo mankomunitateek etxeko laguntza zerbitzua emateagatik egiten dituzten hiruhilekoko likidazioen ondoriozko zenbatekoak xedatzeko, onartutako hitzarmenaren seigarren eta zazpigarren klausuletan eta klausula iragankorrean ezarritakoaren arabera.”

Batzorde txostenemaileak gaia aztertu eta eztabaidatu du, eta ondoren erabaki proposamenarekin bat egiten du.

ERABAKI PROPOSAMENA:

Lehena: Gipuzkoako Foru Aldundiak arautu, onartu eta udal honek 2021-2023 epealdirako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzekoa hitzarmena, 2023ko abenduaren 21ko Udal Batzarrean onartu zuen hitzarmen eredia, era berean urtebetez luzatzea Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Lurralde Historikoko udal eta mankomunitateekin Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) finantzatzeko formalizatutako hitzarmenak, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era.

Bigarrena: Alkatearengan ordezkatu, hitzarmenaren kudeaketa administratiboa gauzatzeko, horretako behar hainbat ahalmen duz organo honi dagozkion eskuduntzetan.

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 09- 30
	IZENA: 20250930ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 10 - 22
		ORRIALDEA:	14 (e)tik 11

Hirugarrena: Udal aurrekontuan izango duen eraginari dagokion forma eman jarduneko eta etorkizuneko aurrekontuen kudeaketan.

II.- Parte hartze txandarik ez da eskatzen, eta zuzenean bozketara jartzen da gaia.

Bozketak eta erabakiak:

Alkateak bozketara jartzen du erabaki proposamena, eta honako emaitzak jasotzen dira:

- 1) Alde bozkatzen dute: EH-BILDU taldeko hiru boto, eta AA taldeko bost boto. Beraz, zortzi boto aldeko, aho batez.
- 2) Aurka bozkatzen dute: Aurkako botorik ez dago.

Aldeko zortzi boto, aurkakorik gabe, beraz aho batez, nahiko eta beharrezko gehiengoa osatzen dutela,


ERABAKIA: Gipuzkoako Foru Aldundiak arautu, onartu eta udal honek 2021-2023 epealdirako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzekoa hitzarmena, 2023ko abenduaren 21ko Udal Batzarrean onartu zuen hitzarmen eredu, era berean urtebetez luzatzea Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Lurralde Historikoko udal eta mankomunitateekin Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) finantzatzeko formalizatutako hitzarmenak, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era.

II.V.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN (GFA) ETA ALEGIAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA (ESKUA KUDEATZAILEAN OINARRIZKO ADMINISTRAZIO-ESPEDIENTEAK EZARTZEKO) ETA ALKATEARI SINATZEKO AHALMENA EMATEA.

I.- Deialdiarekin batera, gaiari buruzko dokumentazio zabal eta ugaria igorri zaie aurretik Zinegotziei. Halaber, honela dion erabaki proposamena ere, igorria izan da:

(...)

Alegiako Udalbatzari, eztabaidatu ondoren, honako erabakia onartzea proposatzen zaio:

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 09- 30
	IZENA: 20250930ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 10 - 22
		ORRIALDEA:	14 (e)tik 12

Lehenengoa.- Onestea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Alegiako Udalaren arteko “EsKuA espediente-kudeatzailean oinarrizko administrazio-espedienteak ezartzeko” Hitzarmena, GFAk bidalitako hitzarmen-ereduaren baldintza beretan. Halaber, baimentzea idazkaritzak testuan izan daitezkeen akats material edo formalak zuzentzea, hitzarmenaren eduki substantiboa aldatu gabe.

Bigarrenkoa.- Ahalmena ematea Alkateari Hitzarmena sinatzeko eta behar diren dokumentu eta jarduketa guztiak formalizatzeko; jarraipen-, interpretazio- eta gauzatze-egintzak burutzeko; eta sinaduraren ondorengo egintzak – komunikazioak, jakinarazpenak, izendapenak eta abarrekoak– izapidetzeko.


Hirugarrenkoa.- Izendapenak. Baimena ematea Alkateari, Ebazpen bidez, honako karguen izendapena egiteko: (i) Proiektuaren arduraduna; (ii) EsKuAko administratzailea; eta (iii) Jarraipen Batzorde Mistoko bi ordezkariak Udalaren aldetik (titularra eta, egoki bada, ordezkoa). Izendapen horiek jakinaraziko zaizkie GFARI eta IZFERi.

Laugarrenkoa.- Espedienteen tipologia. Hasiera batean, Hitzarmenaren II. eranskinean jasotako 20 espediente oinarrizkoen zerranda erreferentzia gisa onartzea. Halaber, aitortzea Jarraipen Batzordeak udal beharren arabera espedienteen tipologia moldatzeko ahalmena, betiere xedea eta esparrua errespetatuz, eta aldaketak akta bidez jasota utzita.

Bosgarrenkoa.- Datuen erabilera eta DBEO. Udalak baimena ematen dio GFARI, IZFE SARI bitartez, ezarritako espedienteen erabilera-datu estatistikoak eskuratzeko eta proiektuaren balorazioa egiteko, sinaduratik bost urtera arte. Halaber, Alkateari baimena ematea DBEO 2016/679 eta aplikagarria den gainerako araudiaren arabera tratamendu-enkarguaren (DPA) klausulak eguneratzeko edo formalizatzeko, beharrezkoa bada; eta datu-babeseko arduradunaren (DPD) irizpena jasotzeko, egoki denean.

Seigarrenkoa.- Jakinarazpenak eta epeak. Baimena ematea idazkaritza-kontuhartzaitzari erabaki hau GFARI eta IZFE SARI jakinarazteko, 2025eko urriaren 31 baino lehen; Hitzarmena sinatu ondoren, kopia artxibora eramatea eta dagokion erregistroan jasota uztea; eta sinaduraren ondorengo egutegia/kronograma koordinatzea.

Zazpigarrenkoa.- Aurrekontu-eragina. Erabaki honek ez du ekartzen udal aurrekontuan zuzeneko kostu ekonomikorik; antolaketa-neurriak eta prestakuntza barne-baliabideekin gauzatuko dira. Hala ere, beharrezkoa bada,

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 09- 30
	IZENA: 20250930ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 10 - 22
		ORRIALDEA:	14 (e)tik 13

barne-banaketak eta lan-denboren antolaketa Alkateak ebazpen bidez eguneratuko ditu.

II.- Parte hartze txandarik ez da eskatzen, eta zuzenean bozketara jartzen da gaia.

Bozketa eta erabakiak:

Alkateak bozketara jartzen du erabaki proposamena, eta honako emaitzak jasotzen dira:

- 1) Alde bozkatzen dute: EH-BILDU taldeko hiru boto, eta AA taldeko bost boto. Beraz, zortzi boto aldeko, aho batez.
- 2) Aurka bozkatzen dute: Aurkako botorik ez dago.

Aldeko zortzi boto, aurkakorik gabe, beraz aho batez, nahiko eta beharrezko gehiengoa osatzen dutela,

ERABAKIA: Gipuzkoako Foru Aldundiak arautu, onartu eta udal honek 2021-2023 epealdirako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzekoa hitzarmena, 2023ko abenduaren 21ko Udal Batzarrean onartu zuen hitzarmen eredu, era berean urtebetez luzatzea Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Lurralde Historikoko udal eta mankomunitateekin Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) finantzatzeko formalizatutako hitzarmenak, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era.

III.- MOZIO, ERREGU ETA GALDERAK.

III.I.- MOZIOAK:

Ez daude.

II.- ERREGUAK:

Ez da egiten.


III.- GALDERAK:

Ez da egiten.

Eta besterik gabe, arratsaldeko zazpiak eta hamar minutu direla, Alkateak amaitutzat ematen du bilera.

Ontzat Eman

ALEGIako UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURAK

 Alegiako Udala Gipuzkoa	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 09- 30
	IZENA: 20250930ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 10 - 22
		ORRIALDEA:	14 (e)tik 14

Alkate-Lehendakariak

Idazkariak

